

## Langile laboralok, adi! Abusu egoeren aurrean ate berri bat zabalduko du LABek

Duela egun batzuk, Justizia Auzitegi Gorenak erakunde publikoetako langile askori eragiten dion epai bat eman zuen. Administrazioiko edo enpresa publikoetako **LABORAL** izaera eta **ALDI BATERAKO** kontratazioan dauden langileei eragiten die.

Epai horrek agerian uzten du Administrazio ezberdinetan erabili den kontratazio sistema iruzurrean oinarrituta dagoela, aldi baterako langileak mantendu direlako LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK (LEP) egin gabe edo egin diren LEPek ez dietelako pertsonal beharrei erantzun. Horregatik **epai honek langile laboral hau finko bezala aitortzen du.**

Auzitegi Gorenak horrelako epai bat egiteak, aukera ematen digu **ezaugarri berdinekin** dauden langileen egoera salatu eta **finkotasuna eskatzeko**. Garrantzitsutzat jotzen dugu administrazioek, langileei egindako iruzurratik eta langileak abusu egoeran mantentzearen erantzule diren aldetik, ofizioz epaia betearaztea. Horregatik, egoera horretan dauden langileei erantsita doan eranskinaren bidez erreklamazioa egitea proposatzen diegu, eta administrazioaren ezezko edo isiltasunaren aurrean, beharrezkoak diren urrats judizialak egingo ditugu. Edozein zalantza baldin baduzu, jar zaitez harremanetan zure lantokiko LABeko ordezkariarekin.

### Beraz, erreklamazioa egin ahal izateko ezinbesteko baldintzak bete behar dira:

1. Langile **LABORALAK** izatea, kasu honetan ez dira aipatzen funtzionarioak edo langile estatutarioak.
2. Lanpostu huts bat betetzeko **hautaketa-prozesu bat lehenago gainditu** duten pertsonak dira, lanpostu finko gisa, hau da, plazarik gabeko gainditutako langileak. Kasu honetan, ez gara ari lanpostetan sartzeko hautaketa-prozesuez, baizik eta lanpostuak betetzeko LEPei buruz.
3. Langileek **aldi baterako kontratazioan abusu-egoeran** egon behar dute, hau da, denbora bat eman behar dute erreferentziako administrazioarekin kontratu harreman batekin.

Auzitegi Nagusiak langile finko izateko eskubidea aitortzen die pertsona horiei; izan ere, bete beharreko egiturazko beharrianak jakinda ere, erantzun eraginkorra eman beharrean, aldi baterako kontratazioaz abusatu egin da. Hautaketa prozesu bat egina eta gainditua izateak argi adierazten du, batetik, beharrezkoak ziren plaza finko guztiak ez zirela eskaini, eta bestetik, abusu egoeran daude langile horiek meritu eta gaitasuna jada erakutsi dutela.

Horregatik guztiatik, eta proposatutako arau-aldaketak nahikoak ez direla eta euskal administrazioen eta langileen premiei erantzuten ez dietela jakinda, gehiegikeriaren eta iruzurraren aurrean gure eskubideak kaleetan, enpresetan, erakundeetan eta epaitegietan lortzeko lanean jarraituko dugu.